

la perfumería

2019KO UDABERRIA

de Mercadona

GORA
GORPUTZ HORI!
Stop zelulitisari

AURPEGIAREN
GARBIKETA

*lehenengo
edertasun-
sekretua*

Ametsegin berriro ere

UDABERRIKO
MAKILLAJEA

LIP KISS *Balm*

Esfoliatu, hidratatu
eta eman kolorea
zure ezpainei



LABURPENEA

04 AURPEGIAREN GARBIKETA: LEHENENGO EDERTASUN-SEKRETUA

Asian, aurpegiaren garbiketa funtsezkoa da, eta azalaren osasunari lotuta dago. European, kosta egiten zaigu edertasun-errutina gisa hartzea. Hona hemen zenbait jarraibide, zure azal garbi eta distiratsua harro erakuts dezazun. Aurtengo udaberrian, *beauty* erronkari heldu nahi diozu?

10 GORA GORPUTZ HORI!

Zelulitisa emakume gehienok dugun arazo bat da. Efoliatu lehorrean edo azala bustita duzula, eta aplikatu produktu egokia: horiek dira zelulitisa arrastotan sartuta edukitzeko kontuan eduki beharreko arauak.

14 BELTZARANDU EGUZKIRIK GABE

Aukerarik ba ote dago larruazal beltzaran polit bat edukitzeko eguzkitan etzanda egon beharrik gabe? Hauxe da jakin behar duzun guztia urteko 365 egunetan azal beltzaran desiragarria eduki dezazun.

16 AMETS EGIN BERRIRO ERE

Eman erromantizismo-kutsu berria makillatzeko zure estiloari, argi- eta kolore-ukituak erabiliz.

24 GALACTIC

Ezpainek eta azazkalek distira egingo dute, galaxiako elementuek bezala. Heldu zuk ere distiraz betetako tonu metalikoen joerari.

28 FLASH MAKILLAJEA 5 MINUTUAN

Guztiok eduki nahi dugu azal *nude* perfektua, gure aurpegiari argia egingo dion makillaje *minimala*. Ezinbesteko 4 elementu bakarrik behar dituzu denbora oso-oso gutxian hori lortzeko. Kontuan hartu!

29 HEMEN DA IRAULTZA

Udaberrian, manikura ausartagoa, koloretsuagoa eta sofistikatuagoa da. Anima zaitetz: konbinatu koloreak, eta sortu diseinu apartak. Prest zaude zure azazkalak pertsonalizatzera jolasteko?

32 HIRU PRODUKTU, ERABILERA UGARI

Kosmetiko batzuek bi erabilera, eta kasu batzuetan hiru, dituzte; askok ez dugu erabilera horien berri. Ikasi ahalik eta etekinik handiena ateratzen zure edertasun-aliatuari.



Argitaratzailea: MERCADONA SA
Polígono Industrial Fuente del Jarro
C/ Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkie. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei.
Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.
© Aldizkariaren titularrak MERCADONA, SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debebatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.

Azalean




Hau darama modelook:
Begi-itza marroia, 07 zk.;
koloretea, 02 zk. mertxika;
Longitud Xtrem
betile-maskara, ezpainenetako
barra mate morea, 09 zk.,
eta distira handiko esmaltea,
23 zk., txikle-arrosa.

la perfumería

Asian, aurpegiaren garbiketa funtsezkoa da, eta azalaren osasunari lotuta dago. European, kosta egiten zaigu edertasun-errutina gisa hartzea. Hona hemen zenbait jarraibide, zure azal garbi eta distiratsua harro erakuts dezazun. Aurtengo udaberrian, beauty erronkari heldu nahi diozu?

Aurpegiaren GARBIKETA

LEHENENGO EDERTASUN-SEKRETUA



Desmakillatzeko Landare-Belakia .



[KENDU MAKILLAJEA BEHAR BEZALA Eman beharreko 5 pausoak eta behar duzun *kita*



1. KENDU BEGIETAKO ETA EZPAINETAKO MAKILLAJEA

Begietako makillajea kentzekoak gel-testura du, eta betileetako eta betazaleetako makillajea kontu handiz kentzen laguntzen du. Makillaje guztia kentzeko, bai eta urarekiko erresistentea dena ere, erabili **Begietako eta ezpaineneko makillajea kentzekoa**.

2. KENDU MAKILLAJEA

Gold Progress 24K makillajea kentzeko olioak makillajea kentzen du, aurpegia, begiak eta ezpainak garbitu eta hidratatzen ditu, eta aurpegiko larruzala garbi eta leun utzi. Gainera, urarekiko erresistenteak diren makillajeak kentzeko balio du.





3. OSATU AURPEGIAREN GARBIKETA, UR-OINARRIA DUEN KREMA BAT ERABILITA

Ur-gel garbigarria bikaina da aurpegiaren garbiketaren errutina amaitzeko: zikinkeria eta makillajearen hondarrak kentzen ditu. Formula aktibo lasaigarriz eta C bitaminaz aberasturik dagoenez, garbi eta garden egoteko behar duen guztia ematen dio aurpegiko azalari, eta beste produktu bat emateko prest uzten.

4. ESFOLIATU ETA TRATATU

Garbiketa aurreratua: astean gutxienez behin azala sakon tratatzeko esfoliatzaileak, peeling-ak eta maskarak. Abrikot-mikrogranulo naturalak dituen **aurpegiko esfoliatzailea** aholkatzen dizugu.

5. TONIFIKATU

Aurpegi-toniko hidratatzailea erabiltzen da garbiketaren ondoren azala goxatzeko, freskatzeko eta hidratatzeko.



Garbitu ondoren... ZAINDU AZALA

Eman azalari urtaro-aldaketarengatik behar duen dosi extra hori:

Serum ultrahidratatzaile azido hialuronikodunak azalari ura ematen dio, eta azalean dugun urari eusten. Hala, hidratazio-geruza natural bat sortzen du. Ezin hobea da deshidratatutako azalentzat, tenkatasun-, hazkura- edo lehortasun-zantzuak dituztenentzat edo *peeling* tratamendu baten, aldaketa hormonalen edo kanpoko ingurumen-agente batzuen ondorioak pairatu dituztenentzat. Baina are gehiago behar baduzu, eman **Khanya Hyaluronic Booster** anpoilak. kontzentratua, Phytocelltec TM duena, sagarren ama-zeluletan oinarritutako printzipio aktiboa, zimurrak gutxitzen laguntzen duena. Azido hialuronikoaren molekulek kanpoko geruzak hidratatzen dituzte, eta azalari itxura gardenagoa eta leunagoa ematen diote.



la perfumería

Bazenekien...

Garrantzitsua da goizean eta gauean aurpegiko azala ongi garbitzea. Egunez zelula hilak ezabatzen ditugu, eta gauean zikinkeria.



HIDRATATU ETA ELIKATU

Garbiketa funtsezkoa da, baina hidratazio egokia guztiz beharrezkoa da azal zaindu eta polita izateko. Aukeratu zure azal-motari eta urteko garai honetako zure beharrei hobekien datorkien produktua. Lortu sendotasuna, hidratazioa eta argitasuna **Sisbela Cosmetics** aurpegiko linearekin. Produktu hauek osatzen dute linea: **Adinaren aurkako krema indargarria eta berregituratzailea, Begi-zulo eta zimurrei aurre egiten laguntzen duen Begi ingururakoa**; eta tratamendua osatzeko, **Lepo eta bularralderako krema Trinkotzailea eta nutritiboa**.



EGUZKI-BABESA

Ez ahaztu UVA izpietatik babestea: **FPS 50+ eguzki-fluidoa, adinaren aurkakoa**. Eta, babesteaz gain, azalari kolore pixka bat ematen badiozu, uniformeago eta politago ikusiko duzu: **FPS 50+ eguzki-krema, adinaren aurkakoa, koloreduna**.

FLORAL



GEL DE BAÑO • BANHO

FLORAL

PEL • PELLE NORMAL
DERMO AROMA

deliplus

Gora gorputz hori!

*Z*elulitisa
emakume
gehienok dugun
arazo bat da. Esfoliatu
lehorrean edo azala
bustita duzula, eta
aplikatu produktu
egokia: horiek dira
zelulitisa arrastoen
sartuta edukitzeko
kontuan eduki
beharreko arauak.



ASKO LAGUNDU ZAITZAKE ESFOLIAZIOAK

Azalean zelula hilak pilatzen dira, eta ez diote uzten arnasa hartzen, eta badakigu esfoliazioak zelula horiek ezabatzeko balio duela; horrez gainera, zelula-birsorkuntza eta odol-mikrozirkulazioa estimulatu ditu. Azalak hobeto xurgatzen ditu esfoliatu ondoren emandako kremak. Azal zaindu, hidratatu eta osasuntsuak hobeto prebenitzen du azalaren ahultasuna. Gorputzaren esfoliazioa egiteko tokirik egokiena dutxa da, gorazko mugimenduen edo mugimendu zirkularren bidez masajea emanda. Hondarrak ur epelarekin edo beroarekin kendu behar dira, eta gomendatzen da ur hotzeko zurrusta batekin amaitzea, suspertzeko. Garrantzitsua da errazago deshidratatzen diren gunetan gehiago jardutea (hala nola belaunak edo ukondoak). Esfoliazioaren ondoren, beharrezkoa da beti ongi hidratatzea.



Behar diren tresnak:

- **Gorputzeko esfoliatzaile minerala**, sakon esfoliatzeko: azal lehor eta zartatua leuntzeko.
- **Bainurako gel esfoliatzaile suabea**, azala leunki esfoliatzeko.
- **Belaki esfoliatzaileak** eta **Krinezko eskularruak**.



LEHORREAN ESFOLIATZEA: ZELULITISAREN AURKAKO TRIKIMAILUA

Badakizu zer den *dry brushing*-a, alegia, lehorrean esfoliatzea? Edertasun-erritual hau boladan dago berriro, hainbat onura dituelako, eta bai aurpegia zaintzeko bai gorputz osoa zaintzeko erabil daiteke. Goizero, eman masajea azalari 5 minutuz krinezko eskularru batekin, eta drainatze linfatikoa estimulatuko duzu, odolaren zirkulazioa hobetuko duzu, eta zelulitisa eta laranja-azala gutxituko dituzu. Gainera, *detox* efektu izugarria du, eta horrek hobeto sentiarazten gaitu, eta azal leun eta distiratsua edukitzen laguntzen digu. Gune batzuetan behin eta berriz errepikatu: izterretan, ipurmasailetan, sabelean eta gerrian. Lehorrean esfoliatu ondoren, azala ondo hidratatuko dugu zelulitisaren aurkako produktuak, krema murriztaileak, drainatzaileak edo larruazala sendotzekoak emanda. Zeren zain zaude praktikan jartzeko?



STOP ZELULITISARI

- **Zelulitisaren kontrako krema murriztailea**, kafeina, galorraz-olioa, Asiako zentella eta E bitamina dituena.
- **Zelulitisaren aurkako efektu hotzeko gela**, drainatze linfatikoa bizkortzen eta hobetzen duena, eta azaleko toxinak ezabatzen laguntzen duena. Zelulitisa eta laranja-azala gutxitzen eta saihesten ditu.
- **Gaueko tratamendu murriztaile intentsiboa**, zeinak itsasoko landare-aktiboak eta bero-efektu leun bat baititu; emaitzak lau astera antzeman daitezke.



BEGIRADA

ziblagarriak

Begietako delineatzailea
+ Rock&Volume betile-maskara

A woman with dark hair pulled back, wearing a light pink, ruffled, sleeveless dress, is sitting on a white surface. She is looking upwards and to the left, with her hands resting near her face and chest. The background is a plain, light color.

BELTZARANDU
EGUZKIrik
gabe

*Aukerarik
ba ote dago
larruazal
beltzaran polit
bat edukitzeko
eguzkitan
etzanda egon
beharrrik gabe?
Hauxe da jakin
behar duzun
guztia urteko
365 egunetan
azal beltzaran
desiragarria
eduki dezazun.*

AUTOBELTZARANTZAILEA ERABILERA-GIDA

Gogoan izan

Garbitu eskuak produktua eman ondoren, eta saihestu ehunak ukitzea.

NOLA APLIKATZEN DA?

Azala garbi eta lehor dagoela, zabaldu modu uniformean, erabat xurgatu arte. Hala behar izanez gero, berriro egin, beltzaran-kolorea edukitzen segitzeko. Aplikatu gorantz eta zirkuluak marraztuz.

NOLA KENTZEN DA?

Nahi duzun tonua lortu ondoren, pixkanaka desagertzen joango da, egunetik egunera, Berehalako beltzaran-efektuko gorputz-gelaren kasuan izan ezik, urarekin eta xaboiarekin kentzen baita, edo ohiko garbitzailearekin.

ESFOLIAZIOA

Azala distiratsua eta uniformeago geratuko zaizu, eta gehiago iraungo dizu. Gakoa da autobeltzarrantzailea eman baino 24 ordu lehenago azala esfoliatzea; bereziki jardun belaur eta ukondoetan.



3



4



1

2

Zure aliatuak

- 1. Paper-zapi autobeltzarrantzaileak** Bizkor eta erraz, gutxi gorabehera 2 orduan, beltzaran-kolore homogeneo eta natural bat ematen dute.
- 2. Berehalako beltzarrantze-efektuko gorputz-gelak** koloretako mikroesferak ditu, eta berehala ematen du beltzaran-kolore natural eta argitsua. Azalean sartzen da, eta kolorea eta argitasuna ematen ditu, makillajea balitz bezala. Dagoeneko beltzaran baldin bazaude, azalaren tonua areagotzen du. Besteak bezala ematen da, azala garbi eta lehor dagoela, masaje suabe bat emanez, produktua azal guztian modu homogeneoan zabaldu arte. Nahi adina aldiz egin dezakezu, nahi duzun tonua lortu arte. Urarekin kentzen da.
- 3. Gorputzerako esne autobeltzarrantzailea.** Berehala ematen du beltzaran-kolorea, eta azalaren tonua hobetzen du.
- 4. Beltzaran-efektuko gorputz-hidratatzailea** Egunero erabiltzeko esne hidratatzailea, beltzaran-kolore naturala ematen duena pixkanaka. Nahi duzun tonua lortu, eta urte osoan mantendu ahal izango duzu.

Ametz egin berriro ere



*E*man erromantizismo-kutsu berria
makillatzeko zure estiloari,
argi- eta kolore-ukituak erabiliz.





1 Bazen behin...

Aurtengo udaberriko makillajea aurpegi-azal perfektuaren aldekoa da,
ez du gehiegikeriarik eta ukitu bukolikoa du;
kolore suabeak erabiltzen ditu.



2

Maitemintzea

Arrosaren bertsio guztiek jantziko dituzte udaberriko egunak. Ausartu zaitetz kolore hori total *look* moduan erabiltzera masailalboetan, begietan eta ezpainenetan, xarmaz betetako makillaje bat izateko.



3 Eztiki

Urtaro erromantikoena eta eztieta izanik,
udaberri honetan pastel-urdina eta -berdea
nagusituko dira begiradetan.

4 Une hori

Lehen musua, arrats eder bat... une batzuk betikotu egin beharko lirateke.
Gauza bera gertatzen da makillajearekin: *look* liluragarrienak
betiko izan beharko lirateke.



MAKILLAJEARI BURUZKO AHOLKUA

Zure kosmetikoak erabilera anitzekoak izatea nahi duzu? Adibidez, *eyeliner*arekin oso trebeak ez direnentzat, aukerarik errazena da pintzel delineatzailea hezetzea eta begirada Seco&Mojado itzal batekin markatzea. Eta zergatik ez diezu ematen kolore bera masailei eta begiei? Erabili koloreteak itzal gisa.



1 Bazen behin...

1. Perla-koloreko begi-itzala, 08 zk. marroia, begirada markatzeko / 2. Kolorete korala masailalboetan, eta begi-itzal gisa / 3. Ezpainenako barra, mate 10 zk. arrosa / 4. Longitud Xtrem betile-maskara / 5. Distira handiko azazkal-esmaltea, 54 zk., mugurdi tropikala.



2

Maitemintzea

1. Begi-itzalak, 07 zk, marroia, eyeliner gisa / 2. Koloretea, 01 zk., begi-itzal gisa / 3. Koloretea, 02 zk. mertxika-kolorekoa, masailetan / 4. Longitud Xtrem betile-maskara / 5. Ezpainenako barra matea, 09 zk. morea.




3 Ezliki

1. Iraupen luzeko itzala, 03 zk. berdea / 2. Perla-koloreko begi-itzala, 09 zk. beixa / 3. Koloretea, 01 zk. arrosa / 4. Barra krematsua, 11 zk. aran-kolorea. / 5. Longitud Xtrem betile-mskara / 6. Distira handiko esmaltea, 54 zk., mugurdi tropikala.

4 Une hori

1. Iraupen luzeko itzala, 02 zk. urdina / 2. Seco&Mojado itzala, 07 zk. grisen duoa / 3. Koloretea, 02 zk. mertxika / 4. Barra matea, 06 zk. naturala / 5. Longitud Xtrem betile-maskara.





Nezeserrak
UDABERRIKO EDIZIOA



GALACTIC

*Ezpainek eta azazkalek
distira egingo dute, galaxiako
elementuek bezala. Heldu
zuk ere distiraz betetako tonu
metalikoen joerari.*

DISTIRA KOSMIKOA

Utzi guztiak harrituta
ezpainetan argi irisatuko
distirak emanda,
Galactic distirekin. Tonua
biziagotzeko, aurretik
ezpainak markatu ditzakezu.
Edo distira anitzeko
emaitza bat nahi baduzu,
eman ezazu zure ohiko
ezpainetakoaren gainean.




FUTURISTA

Ezkerreko orriko *lookean*,
azala eta ezpainak dira
protagonista nagusia. Askatu
zure sormena, eta ausartu
zaitez zure aurpegia argitzen.



FUTURISTA

1. Iraupen luzeko begietako itzala, 05 zk. krema-kolorea, begi-txokoan, argi-puntu bat sortzeko / 2. Seco&Mojado itzala, 06 zk. duo marroi naturala, begirada argitzeko / 3. Galactic Gloss, 02 zk. granate galaktikoa / 4. Koloretea, 02 zk. mertxika / 5. Rock&Volume betile-maskara / 6. Galactic azazkal-esmaltea, 858 zk. marroi perlakara.



DISTIRA KOSMIKOA

1. Seco&Mojado begi-itzalak, 08 zk., duo urre-marroia, mugitzen dugun betazalari eta bekainen arkuari argia emateko / 2. Perla-koloreko begi-itzala, 08 zk. marroia, betileen sustraian, begirada biziagotzeko / 3. Galactic Gloss, 03 zk. krema galaktikoa / 4. Koloretea, 03 zk. urre-kolorea / 5. 4 dimentsiotako bolumena betile-maskara / 6. Galactic azazkal-esmaltea, 857 zk. arrosa perlakara.



NEZESERRAK

Kiroletakoak



flash MAKILLAJEA 5 MINUTUAN

4 dimentsiotako bolumena betile-maskara begirada zabaltzeko eta nabarmentzeko.



Eguzki-hautsak masailalboak inguratzeko eta markatzeko eta azala beltzarantzeko.



Hydra-confort makillajea oinarri gisa, aktibo antioxidatzaileekin eta SPF 25ekin.



Guztiok eduki nahi dugu azal nude perfektua, gure aurpegiari argia egingo dion makillaje minimala. Ezinbesteko 4 elementu bakarrik behar dituzu denbora oso-oso gutxian hori lortzeko. Kontuan hartu!

Barra krematsua, 12 zk. geranio-kolorea, ezpainei kolorea emateko.



HEMEN DA *IRAULTZA*

*Udaberrian,
manikura
ausartagoa,
koloretsuagoa eta
sofistikatuagoa da.
Anima zaitetz: konbinatu
koloreak, eta sortu
diseinu apartak.
Prest zaude zure
azazkalak
pertsonezatzera
jolasteko?*

FRANTSESA, BI KOLORETAKO

Aukeratu manikura bi tonutan:

distira handiko esmaltea

54 zk. magenta erreala eta

49 zk. kanela sofistikatu.

Azazkal batzuk frantsesen
eran margotu ditzakezu, eta
beste batzuk modu arruntean,
bi koloreetako bat erabilita.




MARRAK

Zenbait diseinu lineal, zure azazkalak margotzeko:

Distira handiko esmaltea

51 zk. gris kartsua eta

54 zk. mugurdi tropikala.



BIKOTE IZARRA


Egin marrak itxuraz
kontrakoak diruditen bi
kolore elkartzeko: **Distira
handia 31 zk. beltz
mistikoa** eta **48 zk. arrosa
esentziala**.



2 PRODUKTU

Kosmetiko batzuek bi erabilera, eta kasu batzuetan hiru, dituzte; askok ez dugu erabilera horien berri. Ikasi ahalik eta etekinik handiena ateratzen zure edertasun-aliatuari.

erabilera ugari.





Balm Me hauts trinkoa, honetarako balio du:

- ✓ Aurpegia inguratzeko (*contouring*)
- ✓ Beltzarantzeko
- ✓ Kolorete gisa erabiltzeko
- ✓ Eta begi-itzal marroi gisa, bai eta bekainen arkuia markatzeko ere.






**Perla-koloreko begi-itzala,
09 zk. beixa,** honetarako balio du:

- ✓ Mugitzen dugun betazalari kolorea emateko, itzal gisa.
- ✓ Begi-txokoa argitzeko.
- ✓ Masailalboei argia emateko (*strobing*)
- ✓ Bolumen efektua emateko ezpainei.



**Iraupen luzeko begiak
markatzeko arkatza,**
honetarako balio du:

- ✓ Begirada inguratzeko (barrukoa eta kanpokoa)
- ✓ Begi-itzal gisa
- ✓ Bekainak markatzeko
- ✓ Ezpainak markatzeko eta kolorea emateko



Galactic

deliplus
COLOR





SIMPLY FLOWERS COLLECTION



LORE-LURRINEN BILDUMA, MERCADONARENA